

UMEEN ARAZOAK

ZENBAKIETAN

Umeen urtea egin zala ez da denpora asko, baiña beti izan bear da umeen arazoak eta bearkizunak gogoratzeko sasoi ona.

Zeintzuk dira umeentzat ekiñaldirik onenak eta irabazkorrenak? Ez salerosteagaz zer-ikusia daukenak; eurentzako argibideak eta ondoren datozen jakintza-gaiak dira bearragoak.

Umeen zoritxarrak zuzentzeko ta lazkeriak aldentzeko zeozer egin bear dogu. Gaur munduan 350 milloi ume bizi dira gosez eta zenbaki au geroago aundiagoa izango da. Ez da iñondik agiri onbide eragillerik.50 milloi umegai, jaiobako ilten dira. Urtero A bitaminea bear dan neurrian ez daukelako 100.000 ume itsutu egiten dira.156 milloi ume urietako bazterretan kirats eta zekenkeri-giro mingarrian bizi dira.52 milloi umek diardue lanean eta alogor gitxi ordainduaz besteentzat onuragagarri eta euren buruentzat kaltegarri dira. Eundaka milloiak ezin dira eldu len-maillako ikastegira. Lurrealde batzutan gurasoak saldu egiten devez euren umeak.

JOKABIDE ZUZENAK

Ba-dagoz jokabide zuzen batzuk oiñarri-oiñarrian gizonen bizitzak zuzendu ta umeen laguntzara biurtzeko diranak.

Asteko, umegai jaiobakoen eskubideak kontuan artu eta euren jaiotzarako eskubide ausi-eziña itzaltasunaz begiratu.

Lurrealde lantegitsuen janari-ornitzea goratu eta guraso guztien buruetara sartu seme-alabentzat euren diruak baiño euren astialdiak balio aundiagoa daukala eta munduko ekonomia ta gizabidea obetuteko guztiok lagundu.

* * *

GOGORKERI BARIK

Naimenezko aurgaltzea gaiztakeri berezia da beti eta eritxi ori zabaltzea bear-bearrekoa dogu, mundu osoak jakin dagian.

Talde bide-galdukoak ba'dagoz, ez da zertan legeak arein neurritz egin

baiña egibideak be ez dira gogorkeriz leporatu bear, eritxi okerrak nai ta nai ez galazotea be indarkeria ta ondorengo kalte geiago etorteko bidea izango litzake.

* * *

BATASUN ERAGINKORRA

Janari ornidutzeaz beste batasun eraginkor bat erabili bear dogu.

Orretarako lurrealde aurreratuak larterri gosedunai laguntza emon bear dautsee, ez bezua legez, biotza aintbesteko zabaltasunera eltzen ez bada, onura ta epe oneko baldintzaz baiño.

Orrelan erri aberatsak euren etorkizunaren alde alegindu leitezke eta beste aberriak aundiago egiñaz erosle geiago egingo dabez euren bialbideak sendotzeko.

* * *

bat ori jazo ez daiten gogamen au buruan izateko: Umeak amaren jarraipen lez, sendia bear dauala.

ANDREAREN LANA

Andra ezkonduaren lana geroago ta geiago zabaltzen da, oraingo bizierearen indarrak eskatzen daualakoedo, senarraren lan geiagia ta askotariko zeregiñak, sarritan izaten dira sendiarentzat kaltegarri. Umeak sendiaren babesa ta zaintza bear dabe.

Janari ornitzea egiteko bide bakarra ez da lana, or dagoz trebebedeen laguntzak, jakintza ta eziketaren bide barriak, senkaketa ta osakai-saltzeko era barriak, langintza, salerosketa, diru-erabiltzeko alkar-bideak...

* * *



BARDINTASUNEAN

Legeak gaur bakoitxaren nortasuna zaindu ta sendotzen dau askatasunean, norberaren buru-jabetasunean, seksu ta adin-arte al dan besteko bardintasunean.

Baiña sendi-eskubideak arriskuan dagoz, baztertzeko bidean. Umearen erri-arte urtea izan zan sasoi on

JOKABIDE ZEATZAK

Umearen eskubideak erri-jolas edo folklore lez artzeko arriskua daukagu, baiña munduaren etorkizuna da umea eta bere arazoak sakon aztertu bear doguz, urrengo gizakiak gu gaur garan baiño orniduagoak eta obeak izan daitezcan.

EGILUZE'k